

## II - ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

### ASPARRENEKO UDALA

#### Behin betiko onestea 2/2020 kreditu gehigarriaren espedientea

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan eta horrekin bat datozenetan xedatutakoarekin, eta erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 2/2020 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, honela:

Handitzeko partidak:

GASTUEN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA EUROTAN
430.622.001	Korta eraikina aterpetxe bihurtzeko obrak	132.258,52
<b>Guztira</b>		<b>132.258,52</b>

Hona hemen zein baliabiderekin finantzatuko den espedientea:

AURREKONTU APLIKAZIOA	IZENA	ZENBATEKOA EUROTAN
870.001	Diruzaintzako gerakinak gastu orokorretarako	132.258,52
<b>Guztira</b>		<b>132.258,52</b>

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2020ko irailaren 15a

*Alkatea*

**CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ**